

Noaia !!

www.noaia.com



Idoia Torregarai, UEU:
"40 ikastaro antolatu ditugu"



Lehertu da festa-giroa Kalezarren

JORGEMEDIUM.COM



Kaixo, albiste zoragarri baten berri eman behar dizuet, San Juan jaia ospatzen denez Jorgemedium.com igarlea Usurbilen egongo da ekainaren 23an eta 24an, tarot kontsultak eta terapia alternatiben aholkuak ematen. Beste mundutik haratagoko mezuak ere transmitituko ditu. Besarkada handi bat eta zuen zain geratzen naiz.

HITZORDUA ESKATZEKO : 699 87 05 77



Zumeta
Jatetxea

Aukera ederra

Astelehenetik igandera

- **Udako menua 18€ + bez**
- **Razioak, kaxuelitak**

Astelehenetik ostiralera

- **Eguneko menua (eguerdian)**
- Afariak: erreserba eginda



© 943 362 713 Txokoalde

GOLDWELL
ELUMEN



Koloraziotan teknika berriak eta iraunkorrrak

Zubiaurrenea 4, 943 361 951

ESKAINZA BERRIA!

**OSTEOPATIA ZERBITZUA
USURBILEN!!**

uztailaren 3tik aurrera

**Karlos Alzugaray Osteopata D.O
Fisioterapeuta Kol zbk 178**

TRATAMENDUAK

- Minak sendatzeko tratamenduak: Bizkarrekoak, artikulazioetakoak, muskuluetakoak, burukoak...
- Lesioak, kirol-lesioak Anginak...

Nori zuzendua? Jaioberriei, umeei, helduei...

HITZORDUA: 607 85 32 08

Albiste iruditan!!

Jasotako babesa eskertu nahi du Agurtzane Solaberrietak

Espainiako Auzitegi Nazionalak D3M-Askatasuna auziko auzipe-ratu guztiak absolbitzea erabaki du, tartean, Agurtzane Solaberrieta usurbildarra. Astelehenean albiste jakin eta ordu gutxira, elkarretaratzea deitu zuen herrian sortua den "Eskubide guztiak proiektu guztientzat" sostengu taldeak, 19:30etarako Mikel Laboa plazan. Senide, udal ordezkari eta herritarrekin batera, Solaberrieta ere bertan zen. Pozik, jasotako babesa eta elkartasuna eskertu nahi izan zituen, baina oraindik egiteko asko dagoela gaineratu zuen. Bide batez, beste herritar bat egoera berean dagoela ere gogorarazi nahi izan zuten atzoko mobilizazioan. Marisa Alejandro usurbildarra hain zuzen, auzi bidean dago eta.



ASTELEHENEKO ELKARRETARATZEAN JENDE ASKO BILDU ZEN.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	943 369 113	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Egunekeo Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KzGunea	943 023 684	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiarde Kirolegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordenberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publicitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregerai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



UGAITZ AGIRRE

Gaztetxea usurbildar erara

Uda gainean dugu. Egutegiek hori dioten arren, eguraldiaren iragarpenak dena aldrebesten du eta uda hasiera honetan egiten diren famili bidaia hauek hankaz gora ipintzen dira Mediterraneo aldera ez bazoaz. Baina denek ez dute Mediterraneo aldera joateko aukerarik izanen eta herria zaintzen geratu beharko dira, noizbehinkako irtenaldiak eginez inguruko herrietara. Aurreko igandean Donostiara joan ziren hainbat usurbildarrek egin zuten moduan. Eguraldia aldeko izanik itsasoari begira egoteko parada polita, kukurutxo edo garagardo bat eskuan, aire garbiak norberaren pentsamenduak biraka ipinirik. Zenbait argazki ikusi ditut eta lore-errota ederra irudikatu zen Zurriolako hondarraren gainean.

Baina gaurkoan ez nator eguraldi txarra, oporrak eta gaupasaz kartulina bat eusten ibili zirenei buruz hitz egitera. Beste gauza batean pentsatu dut, moskeatu nahi zaitut oraingo honetan. Edo saiatu bederen. Duela hilabete batzuetatik pil-pilean dabilen gai bati buruz hitz egitera nator, tabu izatetik mintzagai izatera pasa nahi duguna herritar batzuk. Tituluan jada ikusiko zenuen zein den gaurkoan zure begien aurrera ekarri dudana: Gaztetxea. Izena egia esan ez zait batzuetan oso egokia iruditzen, baina horrela deitzen da eta horrela deituko diogu guk ere. Aste honetan zehar hamar bat gazte herriko kaleetan zehar ibili dira jendeari gaztetxeari buruzko elkarrizketak egiten, herriak gaztetxe baten inguruan duen iritzia ezagutzeko asmoz edota zer nolako ekarpenak egitea gustatuko litzaizkioken jakitea. Herritik herriarentzat lelo pean dabilta. Herritik sortutako proiektu bat izan nahi du eta, herriak behar dituen beharrak asetzeko sortuko dena eta herriko edonork parte har lezakena bertan antolatu daitezkeen ekintzetan.

Eraikuntza. Galdera eta hiru puntu. Baina kontuan har ezazu: benetan axola du zein den gaztetxea bihurtuko den eraikuntza? Benetan axola du hau edo hura izatea? Gauza jakin batzuk burutzeko egokiago izango litzateke hau edo bestea, edo beharbada hango hura. Baina bilera batean entzun nuen moduan eraikuntza herriko beste edozein txoko bezalakoxea izango da, elkargune bat, egunean ditugun hainbat biltokiei batuko zaïen beste bat. Irudia. Forma. Arkatzez markatutako lerro bat besterik ez da izanen eraikuntza. Eta irudi, forma, lerro horrek bere bizitasuna behar du, bere kolorea behar du. Eta kolorea zu zara. Zuk emango diozu kolorea. Zuk emango diozu bizia. Beti ere nahi baduzu.

Beraz, hau irakurri ostean etortzen bazaizu gazteren bat elkarrizketa bat egiteko prest zauden galdezka, faborez, gera zaitze une batez berarekin eta erantzun zaiozu galdeturikoari. Azken batean, pentsa ezazu fabore handi bat egiten ari zarela gaztetxearen inguruan sortu den mugimenduari eta zure harri pusketan bertan ipini duzula sendoagoa izan dadin. Osatu dezagun denon artean gaztetxe bat usurbildar erara, gure kezka eta ametsekin, gure proiektu eta beldurrekin. Perfektua ez da izanen, hori bada-kigu, baina geurea izango da eta inor ez da bere etxean kanpotar sentituko. Eta proiektu honen inguruan zerbait gehiago jakin nahi baduzu, ibili arretaz bi hilabete hauetan burutuko diren ekintzetan eta gerturatu kozkarik ez dugu egiten eta.

Eta gainontzekoan, irakurle, ongi ibili opor hauetan. Ahal den patxadarik handienarekin, nahiz eta ez duen ematen oso lasaia izango denik. Eta datorren urtean ikusiko gara, aire berriekin. Mediterraneoaren eta Alpeen arteko nahasketa internazional batekin. Besterik ez, ongi pasa eta gutxi gasta. Ciao.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika !!

Usurbildarrok asko dakigu sortzen ditugun hondakinen kudeaketaz. Herrian lortu ditugun emaitzek garbi adierazten dute (atez ate ez zegoen 2008 urtean %28,43, atez ate hasi zen 2009 urtean %82,33, 2010ean 88,60), eta ikusi nahi dituenak herriko frontoian dauden emaitzei begiratu besterik ez dauka. Euskal Herrian ez da emaitza onik lortu eta Europa osoan ere aurreneko lekuetan gaude. Orain gutxi Espainiako Gobernuako Ingurumen Ministroak hondakinen kudeaketan ondo ari delako zoriondu egin du Usurbil.

Egun hauetan, Gipuzkoako Foru Aldundia gidatzen duen Bilduk eta Europako inguru-

Zoriontzeko aurkezpena

men arloko 5 adituk egin duten proposamena zertan datzan azaldu eta ezagutzeko aukera izan dugu Gipuzkoako herritarrok. Ni Zarautz eta Tolosako aurkezpenetan izan nintzen eta benetan oso egokia iruditu zitzaidan azaldu zigutena. Jendeak egindako galdera askori erantzun behar izan zieten proposamenaren egileek, Europako arduradunek eta Aldundiko Ingurumenekoek.

Proposamenaren egokitasuna, ez da bakarrik usurbildarrok (Hernani, Oiartzun eta Antzuolakoak ere bai) ondo egiten dugun hondakinen bilketaren ingurukoa, sortzen duten edo dugun hondakinei irtenbide egokia emategatik ere bai. Beraz, herrialdeko

biztanle naizenez aurkezpena egin diguten Europako eta Aldundiko arduradunei neure esker ona ematea besterik ez dagokit. Ingurumenarentzat eta herrialdeko biztanle on osasunarentzat onura besterik ez diot ikusten proposamenari. Usurbilen (eta beste hiru herrietan) egiten dugun bilketak honelako proposamen bat behar zuen hondakinen kudeaketak tratamendu oso bat izan dezan. Gipuzkoa herrialde osoko biztanleok gure etxetan sortzen ditugun hondakinentzat berriz, proposamen integrala dela deritzot.

Geuk ez ezik ondorengoek ere eskertuko digutenez, proposamenarekin aurrera.

Orkatz*

* Ezizena ere onartzen da, baina idatziaren egile den gizabanakoaren NA edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia (Ika-mika araudia, NOAA! astekaria)

Aire garbia erreguka



Ikusgarria eta zirrargarria Donostiako Zurriola hondartzako goiko argazkia. Milaka herritarren laguntzaz, Gipuzkoa Zero Zabor taldekoek iganderako finkatua zuten erronka bete dute; errausketaren aurkako haize errota koloretsu eta erraldoi bat eraiki eta aire garbia biratu zuten 5.000 lagunek, ekimen alai, koloretsu eta original honen bidez.

Usurbildar ugari ziren tartean, baita udal eta Foru Aldundiko ordezkariak ere. Iazko flash mob ekimenak izandako parte hartzea bikoiztu zuen ekainaren 17ko ekimenak. Argazkiak eta bideoak gipuzkoazz.com web orrialdean egongo dira ikusgai egunotan. Ekimenerako erabilitako kartulinak ikastoletan banatuko dituzte antolatzaleek, berrerabil ditzaten.

Txokoak Aginagan, ekaina amaitu artean

Antxomolantxa Elkartek txokoak antolatu ditu ekainaren 25etik 29ra. Izen emateko epea larunbat honetan, hilaren 23an itxiko da. Apuntatzeko telefono zenbaki honetara deitu beharko da: 610 875 287. Txokoak goizez izango dira Aginagako ludotekan, datorren aste osoan zehar, 10:00-13:30 artean.

Antxomolantxakoek ohartarazi dutenez bestalde, urtean zehar larunbatero izan ohi diren kirol jarduerak eta plastika tailerrak etengo dira ekaina-



ren 30etik irailaren 8ra. 2012-2013 ikasturtea hasten denean, martxan jarriko dira berriro. Iraileko txokoen berri, aurrerago emango dute Antxomolantxako kideek.

Zubietan eta Aginagan ere San Juan su festa

Kalezarren bakarrik ez, Zubietan eta Aginagan ere larunbat honetan San Juan bezpera ospatuko dute, ekainaren 23an piztu ohi den suaren inguruan. Zubietan, triki poteoa iragarri dute 19:30etan. 21:00etan afaria eta ondoren sua piztuko dute. Aginagan bestalde, gaueko 22:00etan sua ikusteko aukera egongo da, ohiko lekuan, Sekaña inguruan. "Gonbidatuta zaudete aginatarrok eta bertara inguratzen zareten guztiok, urteko gau luzeenari ongi-etorria ematera", adierazi dute Antxomolantxa elkartekoek.



Maixu etxeko

pisuko zozketa egin da

Astehenean burutu zen Maixu Etxeko alokairu sozialeko etxebizitzaren zozketa, fase honetaraino ailegatu diren zazpi eskabideren artean. Maizterra aukeratu eta gainerako hautagaiekin itzarote zerrenda bat osatu du Udalak. Halere, "etxebizitza behin behingoz esleitu aurretik, oinarrietan ezarritako baldintza guztiak betetzen direla ziurtatuko du". Dena aurreikusi bezala badoa, maizterrak uda honetan bertan jasoko ditu etxebizitzako giltzak.


ARRANDEGIA
PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5


Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

Aralar alderdiaren balorazioa, legealdiko lehen urtean

“Era eraikitzailean jarraitzen dugu lanean”

Legegintzaldiaren lehen urtea bete da oraintsu. Aitzakia honekin, udalbatzan ordezkaturik dauden alderdien balorazioak jasoko ditugu datozen zenbakietan. Honakoan, Aralarrekoak dira lehen urtearen balantze modukoa egin digutenak.

NOAUA! Bilduk gehiengo osoa duen aldetik, zer nolakoa da oposizio lana?

Aralar. Hasieratik hurbildu ziren guregana, gurekin kontatu nahi zutelak adieraziz. Bilerak egin genuen, eta gobernu batzordean sartzea eta batzorde informatzaileetako bat hartzea proposatu ziguten. Guk partehartzeko interesa hasieratik agertu zuten. Gure programaren berri eman genien, beraiek euren ere bai eta hor giro ona izan zen. Baina proposamena egin zigutenean ia karguren bat hartu nahi genuen, aipatu zituzten hiru liberatu proposatuko zituztela euren aldetik. Ikusirik hiru liberatu planteatzen zituztela, esan genien ez ginela gobernuan sartuko baina oposizio eraikitzailea egingo genuela.

N. 2012ko udal aurrekontuen bueltan ordea, tirabirak izan ziren.

A. Lehen proposamena pasa ziguten, besteetan bezala eta gainerako udal taldeei bezala, eta epe bat eman oportazioak egiteko. Gure ekarpenak egin genizkien eta horien artean garapen bidean dauden herrialdeentzako urte dexentetan eman den aurrekontuaren kapitulu batzuen %1 mantentzea izan zen. Gobernu taldeak %0,7ra jaitsi zuen udal aurrekontu proposamenean. Guztira, 30.000 euro gutxiago edo. Guk esan genien aldeko botoa emateko, %1 hori mantentzea baldintza moduan jartzen genuela. Ez zuten onartu, beste herri batzuekin konparatuta asko ematen zela hemen, eta ez zutelak ulertzen gure postura... ezta gure ere euren.

Diru-kopurua bera baino grabeagoa iruditu zitzaigun ezartzen zen irizpide aldaketa. Egia da krisiak eragina duela baina behar gehien dutenei ez badiegu laguntzen... Guretzat oso garrantzitsua da %1 mantentzea. Gainerakoan, ez da



JOSERRA FURUNDARENA ETA EUSTAKIO ARROJERIA ARALARREKO ZINEGOTZIAK.

aurreko legealdiarekiko aldaketa berezirik sumatu, ez dute gurekiko jarrerarik aldatu, eta Aralarrek era eraikitzailean jarraitzen du lanean.

BILDUREKIN HARREMANAK

“Programak alderatuz gero, konturatuko zara ez daudela ezberdintasun handiegirik proposamenean”

N. Mikaztu egin ziren Bildu eta Aralarren arteko harremanak geroztik?

A. Segituan eman genion buelta. Geroztik, esaterako, hainbat mozio elkarrekin aurkeztu ditugu. Gure aldetik, kontrako botoa gai horretan oinarritu genuen, baina jakin bagenekien beste gauza askotan bat etorriko ginela. Uste dugu beraiek ere ulertu dutela nahiz eta gaizki hartu une horretan. Bakarrik geratu ziren eta ez zuten hori espero.

Programak alderatuz gero, konturatuko zara ez daudela ezberdintasun handiegirik proposamenean. Beste kontu bat da horiek aurrera eramateko unean eta eran egon daitezkeen diferentziak. Gainerakoan harremanak “kordialak” dira, errespetuzkoak.

N. Ikastolaren eraikin berriari dago-

kionez, badirudi asko igo dela aurrekontua. Nola daude gauzak?

A. Gauzak ez daude batere garbi eta epe aldetik larri samar gabiltza. Arkitektoak landu zuen proiektua polita zen baina aurrekontua asko igo zen. Ikastolakoak hasi ziren bilerak egiten udaletxeko alderdi guztiekin. Aralarrekin ere egin zuten, eta udaletxearen aldetik ekarpen ekonomiko handiagoa egiteko eskatu zuten. Guk esan genien aurrekontua ikaragarri igo zela eta udaletxea ez zebilela batere ondo diru aldetik eta behar asko zeudela herrian. Gerora, ikastolak berak aldatu egin du proiektua, ikusten zutelako ez zela bideragarria. Haur Eskola Kalezarren uztea planteatzen dute, ez mugitzea oraingoz. Proiektua berregokitu egin behar dute, baina aurrekontua asko jaitsiko da.

Bien bitartean, udalak planteatu du herriko hezkuntza arloko eragile guztiekin prozesu partehartzaile bat jarriko dutela martxan hezkuntza batzordean, ekainean eta uztailean egin nahi da prozesuaren planifikazioa eta udazkenean prozesu partehartzailea bideratu, abendurako bukatu eta urtarrilean ondorioak atera.

Adostasun batera iristea ez da erraza izango baina ea jendeak partehartzen duen eta elkarrekin herriarentzat onak izango diren ondorio batzuk ateratzen

“Diru laguntza mailan, ondo laguntzen da udaletxetik”

NOAUA! Eskola publikoa sustatzeko eskaera ere egin zen. Zertan da hori?

Aralar. Eusko Jaurlaritzak esaten du ez duela dirurik eta ez duela sosik jarriko eskola publiko bat martxan jartzeko. Baina talde bat osatu zen eskola publiko bat eskatuz Usurbilen eta jakinda eskola publikoaren eskaera hor zegoela, lehenago heldu behar zitzaion gaiari Batzordean. “Pelma” izan gabe zirikatzen jardun gara Batzordean baina gauden lekura iritsi gara: prozesu partehartzailea martxan jartzearen konpromisora. Horiek horrela, prozesu partehartzaileko ondorioetan adostutako zerbait lortzea inportantea izan daiteke. Ondorio horiek urtarrilerako espero direnez, bitartean ikastolako eraikin berriaren proiektuak gelditu egin behar luke. Ondorio horien arabera jarraitu beharko genuke aurrera.

Ea lasaitasunez egiten den gogoeta hori. Egia da batzorde horretan formulatuko diren ondorioek ez diotela obligaziorik ezartzen Udalari baina errespetatuko dituela espero dugu. Dena dela, solaserako foro bat izango da eta hori bera ere oso inportantea dela deritzogu.

Zumarte Musika Eskola ere hor dago. Haur Eskola hustu eta hara joango zirela esan zitzaion baina orain entzun dutenean Haur Eskola bere horretan mantenduko dela, galdezka hasi dira. Ea gaiari noiz heltzen diogun.

N. Potxoenea inauguratu da. Kulturen azpiegitura nahikoa bada.

A. Plan estrategiko bat egin zen aurreko legealdiaren amaieran, herriko taldeen parte hartze handi batekin. Dokumentu batean jasota daude datozen urteei begira taldeek ikusten zituzten premiak. Kultura batzordean lehenetsun batzuk zehaztu ziren eta egutegi bat ere adostu zen. Lanerako tresna badaukagu.

Esan behar da talde asko ditugula herrian, eta aberastasun handia da hori. Talde guztiei babes ematea inportantea izango da. Herriko taldeei gauzak gordezko lekua eman nahi zitzaion Potxoenean, taldeen topaleku bilakatu... Ez dakit lortuko den baina taldeak hasten badira erabiltzen, Potxoeneak indarra har dezake zentzu horretan. Horretarako pentsatuta dago. Aralarren iritziz Udalak bideratu behar du sustapen lan hori, erraztasunak emanez. Indargune izan dadin.

Bestela, diru laguntza mailan, ondo laguntzen da udaletxetik.

(...) Bestelako azpiegiturei dagokionez, faltan botatzen dugu auzoetako azpiegituren inguruko aholku batzorde bat. Orain, auzoz auzo informazioa zabaltzen ari dira udal gobernukoak. Hori inportantea da eta ondo dago, baina hori baino gehiago ere egin behar dela uste dugu, zerbait iraunkorragoa antolatu beharko litzatekeela. Hezkuntzan egin nahi den bezala, auzoen inguruan zergatik ez? Gogoeta konpartitua eginez.

Hirigintza arloari dagokionean herrian bidegorri-sare bat egiteko proiektu eskatzen ari gara aspalditik eta esan digu-



USURBILGO UDALA
SANEATUENETARIKOA OMEN DA.

te aurtan aurkeztuko dutela.

N. Eta zein egoeratan dago udaletxea?

A. Aurreko legegintzaldiaren hasieran, 1.200.000 euroko mailegu bat eskatzeko proposamena egin zen. Antza, legealdi guztietan eskatzen zen horrelako mailegu bat. Ez genuela kezkatu behar horregatik, gure udalaren zorpetzea ez zela horrenbestekoa. Ekonomiaz ez dugu hainbeste ulertzen baina momentu honetan udaletxeak 2.700.000 euroko maileguak ordaintzen ditu.

Zorpetzeari dagokionez, aurreko kon-tuhartzaileak zioen beste herri batzuekin alderatuta Usurbilgoa ez dela horrenbestekoa, “saneatuenetarikoa” dela.

Bestalde esan behar dugu, aurreko legealdian behin eman genuela udal aurrekontuen aurkako bozka eta mailegu hura eskatzeagatik izan zela. Artean oraindik krisia etorri gabe zegoen. Badirudi estandarren barruan dagoela udalaren zorra, baina hala ere kopuru handia dela iruditzen zaigu.

“Nekazaritza eta Ingurumen batzordean partehartzeko bideak erraztu egin dira”

NOAUA! Partehartzea sustatzeko asmoa adierazi zuen udal gobernu berriak. Zer nolako harrera izan du?

Aralar. Partehartzerako batzorde bat sortu da partehartzea sustatzeko. Bitan elkartu da oraingoz. Arduradun bat ere izendatu zen eta formazioa emango zigutela esan zitzaigun, baina frakaso bat izan da. Ez du funtzionatu. Horrek ez du esan nahi beste batzordeetan partehartzea sustatuko ez dutenik. Hezkuntzan prozesu partehartzailea jarri da martxan, adibidez.

Oro har, aurreko estiloarekin jarrai-

tzen dute lan egiteko unean, nekazaritza eta ingurumen batzordean izan ezik (Jose Maria Rivadeneyra da batzorde buru); horretan denok partehartzeko moduko planteamendua egin da. Hasiera hasieratik legealdi honetarako lan ildoak aurkeztu zizkigun, ekarpenak egiteko aukera eskainiz. Kontrastatu egiten dira planteamenduetan, egiten diren ekarpenak ontzat hartzen dira eta batzordea bera irekia da. Zinegotzi ez direnak ere hartzen dute parte. Eta gainera bi lan-talde osatu dira: hiri hondakinena eta

Nekazaritzarena. Hiri hondakinari dagokionez, olio bilketarako sarea ezartzea izan da azkenetako lana. Arlo honetan Zero Zabor taldea dago atzetik eta nabari da hori, taldea motibatuta dago eta ongi funtzionatzen du. Nekazaritza landuko duen taldea, berriz, orain abiatu da eta udal baratzak bideratzea izan da bere lehen egitekoa. Arlo osoari dagokionez, eta labur esanda, informazio asko ematen da eta partehartzeko bideak erraztu egin dira. Beste batzordeekin alderatuta, diferentzia sumatzen da.

“Genero arloan asko aurreratu da”

NOAUA! Ongizarte arloan ze pauso eman dira?

Aralar. Dirulaguntzak bideratzeko deialdi irekiak daude. Aurten, herriko lau elkarterekin hitzarmen zuzena sinatu da: Odol Emaileen Elkartea, DYA, Herrira eta Usurbilen Nahi Ditugu. Horiekin hitzarmenak egin dituzte.

Arlo honetan, krisiaren eraginez areagotu egin dira beharrak. Ez dugu kontrastatu aurreko urteetako kopuruarekin, baina eskaerak egon badaude. Bi etxebizitza zeuden lehen larrialdietarako. Ikusirik horietako bat urtebetez hutsik egon dela, alokairu

sozialera bideratzea erabaki da. Hutsik edukitzea alferrikakoa da, baina larrialdi egoera bat ematen bada egoera horri erantzun egin behar zaio. Hori ziurtatzea eskatu genuen aldeko botoa emateko eta baiezkoa esan ziguten.

Eguneroko jarduerak du garrantzia, horrez gain, berri batzuei aurre hartzea. Horietako bat da gaixo psikikoen gaia. Esan behar da, Aralarren eskaerari erantzunez heldu egin diotela gaiari. Gizarteak daraman bide eta erritmoarekin, gaixo psikikoak, tamalez, ugaritu egingo dira etorkizunean eta erne egon behar dugu. Kezka hori trans-

mititu dugu eta udaletxeak bere egin du.

Horrez gain esan, berdintasun arloan plan bat egin zela eta plan hori aurrera doala. Formazio arloan ari dira lanean. Bi emakume talderekin bideratu da eta zinegotziei ere eman digute ikastaro bat berdintasun arloan. Sexu aholkularitza zerbitzua ere ireki dute, berria da. Bidea zabaltzen ari da gazteekin, jende helduarekin... Kontsulta bat dago eta zerbitzu hau positiboa dela iruditzen zaigu. Genero arloan ere asko aurreratu da. Teknikaria ere kontratatu zen. Arlo horrek garrantzia dezente hartu du udaletxean.

“Inork ez du esan bidea erraza izango denik”

NOAUA! Aralar barruan izan da mugimendurik. Zein eragin izan du eztabaida horrek herri mailan?

Aralar. Ezin dugu ukatu eragin duela. Hiru kide inportanteak izan dira beste bide bat hartu dutenak. Usurbilen zehazki, Aralarrek hartu duen bidearekin bat egin dugu. Zailtasunak zailtasun, hasiera hasieratik aldarrikatzen genituen puntuak finkatzeko unea zela uste dugu. Ez da etorri guk nahi genuen momentuan eta erritmoan, baina ez dugu guk hori markatzen eta talde txikia izanik, gutxiago oraindik. Kanpoko faktoreen eraginpean gaude nagusiki.

Zentzu horretan, mediatikoki jendeari eragingo zion. Iritsi zaizkigu iritzi batzuk, baina oso gutxi. Aitortu behar dugu, esku artean dugun informazioarekin, ez garelai komunikabideen eraginak zer nolako ondorioak izango dituen neurtzeko.

N. Ez da zatiketarik eman herrian, ezta?

J. Furundarena. Pena handiarekin bizitzen ari naiz hau dena. Asko estimatzen ditudan pertsonak dira Legebiltzarreko hiru kide horiek eta, horregatik, pena handiarekin bizitzen ari naiz urrutze hau.

Urruti zeuden asko Aralarrek defenditu dituen ideietara etorri direnean, eta ematen zuenean momentu gozoak bizi behar genituela, piztu da hau guztia. Niri oso zaila egiten zait ulertzea nola iritsi garen egoera honetara; alderantziz behar zuenean izan. Gure tesiak indartzen ari direnean juxtu gu ari gara gure artean krisi hori bizitzen. Guri ahuldu egin gaitu egoera honek alderdiaren barruan, eta horrek pena handia ematen dit. Baina bestalde, azkenaldian gertatu diren gauza guztiak

ikaragarriko alaitasuna ematen didate. Ematen du behingoz dena bideratzen ari dela, indarkeriarik gabeko egoera batean.

Txanponaren bi alde horiek bizi ditut, pozik dena bideratzen ari delako; eta triste, Aralarren barruan gertatzen ari den guztia-rengatik.

E. Arrojeria. Ez, gure artean ez. Baina egia da irudi bat zabaldu dela, zatikatuta gaudenarena, Aralar indargabetua dagoenarena... Horrek kalte egin du eta une honetan gutxi izan arren, sendo agertzeko garaia da. Une hau da indartsuago agertzeko momentua eta badirudi ahulago gaudela, irudi hori transmititu da. Jendea erakartzeko erraztasunik ez du ematen honek.

Hamar urteotan, ezker anitz eta zabala eratu nahi genuen, ETA desagertzea, bakegintzan urrats garrantzitsuak ematea, normalizazio politikoa lortzea, alderdi guztiek instituzioetan normaltasunez partehartzea, ezin dugu esan lortu denik, baina bai bide horretan urrats garrantzitsuak ematen ari direla. Egoera horren aurrean Aralarrek hautua egin beharrean aurkitu da, epe ertain eta luzerako apustua egin eta bide hori sendotzen jarraitu ezker abertzale zibil eta zabal horren barrutik ala kanpotik eragin. Aralarrek barrutik jarduteko aukera egin du.

Inork ez du esan bidea erraza izango denik, baina ahaleginak merezi duela iruditzen zaigu. Hau esan ondoren esan behar dut, Aralarren printzipioekin bat egin dutenek orain dutela aukera paregabera gure apustua sendotzeko, ateak zabalik dituzu, hurbildu eta sendotu gure ibilbidea zure ekarpenekin.



IRUDIAN, PATXI ZABALETA.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoarekin bat dator Aralar

NOAUA! Hondakinen inguruko plan eguneratua iragarri zuen aurreko astean Foru Aldundiak. Zer iritzi duzue?

Aralar. Gu hasieratik egon gara bide horren alde. Aralarrek aspalditik landu duen gaia da hau. Bazirudien hasiera batean bilketa selektiboa –atez ateko bilketa– eta errefusaren metaketa edo erraustegia zela kontua. Baina Aralarrek hasieratik esaten zuen nahastuta biltzen denarekin ere zerbait egin behar dela, metaketara iritsi aurretik. Ildo horretan, aukera ezberdinak aztertzen ari dira eta pozik gaude horregatik. Erraustegiaren aurka geunden hasiera hasieratik eta gaude, baina tartean zerbait falta zela iruditzen zitzaigun. Esan behar da bestalde, bilketa sistema diferenteak planteatzeko bidea uzten bada ere, bereizita %70 bildu behar dela gutxienez, eta hori ere oso garrantzitsua da Aralarren iritziz.

San Juan jaien bigarren asteburua, ate joka

Giro ederrean bizi izan dira Kalezarko festak, asteburuan. Jaiak ordea ez dira amaitu. San Juan Bezpera eta Eguna ospatzea geratzen da oraindik asteburu honetan. Lau eguneko etenaldiaren ostean, ostiraletik aurrera parranda giroa nagusituko da berriz Kalezarren.

Ekainak 22, ostirala

17:00 Tortila patata lehiaketa.
19:00 Zumarte Abesbatzaren emanaldia.
23:00 Urrezko Muxkerrak, Hotzikara, Mendeku Itxua, Itzartu.

Ekainak 23, larunbata

San Juan Bezpera
15:00 San Juan eskearen irteera.
22:00 San Juan sua.
Ondoren, eskearen jarraipena.

Ekainak 24, igandea

San Juan Eguna
11:30 Meza Nagusia. Ondoren, toka.
13:00 Soka-dantza.
16:30 Gorritiren showa. Ondoren, buruhandiak.
Ondoren, sardina eta sagardo dastaketa Saizar Sagardotegiaren eskutik.



IGANDEAN, HAURRAK NAGUSI IZAN ZIREN KALEZARREN.

Pintura Lehiaketa, ekainaren 29an

Hamargarren ediziora ailegatu den Haurrei zuzenduriko Santixabeletako Pintura Lehiaketa ekainaren 29an ospatuko da. Txapelketa, 2-16 urte arteko zuzendua dago. Parte hartzeko gogoz direnek, hurrengo asteko ostiral goizean, 10:30etatik aurrera frontoira gertura daitezke. Lehiaketarako beharrezko materiala bertan utziko da. Eta marrazteko gaia ere proposatu dute antolakuntzatik, zer marraztu joan pentsatzen beraz: "Zer gustatuko litzaizuke egitea uda honetan zure lagunekin?". Hortxe gaia, beharrezko materiala pilotalekuan egongo da hilaren 29an. Sariak, hamaika guztira, egun berean 13:00ak aldera banatuko dira.

Artzabalgo zein Zirriborrokoen erakusketak

Ostegun honetatik, ekainaren 21etik 25era ikusgai egongo dira Sutegin, Artzabalgo pintura tailerrekoen lanak. Orduetegi hauetan; ostegun eta ostiralean, 17:00-20:00 artean; larunbatean, 10:00-13:00 eta 17:00-20:00 artean; igandean, 10:00-13:00 artean.

Ekainaren 26an Zirriborro Tailerreko kideen erakusketa Sutegin, uztailaren 3ra arte. Egunero, goizez 11:00-13:00 / 18:00-20:00 artean.

Pailazoen emanaldia, ostiralean Santuenean

Ikasleek udako oporrak hartuko dituzten ostiral honetan, pailazoen emanaldia programatu du Santuenea Kultur Elkarteak, 17:30ean auzoko frontoian. Jakin eta Jolas antzerki taldeko kideek "Ipar Poloan bero, dantzatzu gero" izeneko saioa eskainiko dute. Izenburuak dioen bezala, dantzan jarri nahi dituzte Santuenera hurbilduko diren gazteak, ipar poloan ez egon arren.



ARGAZKIAN, JAKIN ETA JOLAS ANTZERKI TALDEKO KIDEAK.

Poxpolin
MERTZERIA
943 36 82 06
Zubiaurrenea 3, baxua

TAXI
607 92 87 70
943 00 44 83
Angel (24h) USURBIL

JE **JON ELORZA**
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Idoia Torregerai, UEU-ko kidea

“40 urte beteta, 40 ikastaro antolatu ditugu”

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) 40 urte bete ditu. Urtemuga urtaro honetarako beste hainbeste ikastaro antolatuta ospatu asmo dute. Denetariko gaiak jorratu dituen prestakuntza eskainiko dute. Matrikulazio epea zabalik dago. Izena ematen duten usurbildarrek gainera, udal diru-laguntza jasotzeko aukera dute. Duela 12 urtetik UEU-ko komunikazio arduradun eta NOAUA!-ko kolaboratzaile Idoia Torregerai usurbildarrak dakartza, zehaztasun gehiago.

NOAUA! Matrikulazio kanpaina betean zaudete, zer nolako zereginetan harrapatu zaitugu?

Idoia Torregerai. Udako ikastaroekin lanean buru-belarri. Aurten gainera 40 urte betetzen dituzte. Orduan, horren bueltan hainbat ekitaldi, hitzaldi moldatu ditugu, azken urteotako ikastaro kopuru altuena baita ere, hiru prentsaurreko, publizitatea, sare sozialak, bazkideak akuilatzea... Egia esan saltsan, lan eta lan nabil, baina gustura.

IDOIA TORREGARAI

“Inoiz baino lan gehiago eta eskaintza handiagoa egin dugu aurten”

N. Zer dakarkizue aurtengoan?

I. T. Aurten 40 urte beteta, sinboliko-ki 40 ikastaro antolatu ditugu. Azkeneko urteetako eskaintzarik zabalena. Aurten gainera krisia dela eta, 1998. urtetik genuen partida kendu digu Eusko Jaurlaritzak. Halere, inoiz baino lan gehiago eta eskaintza handiagoa egin dugu, 40. urteurrenarekin. Baina gazi-goza gertatu izan da urteurren hau.

N. Nola hartu duzue Jaurlaritzaren erabakia?

I. T. Oso epe txikiarekin jakinarazi ziguten. Ia 188.000 eurotako laguntza da, UEUren funtzionamendurako oso diru garrantzitsua da. Partida hau kendu-



UEU-KO KOMUNIKAZIO ARDURADUNA DA IDOIA TORREGARAI.

ta, duela zortzi urteko aurrekontuetara bueltatu gara. Guretzat oso kolpe handia izan da. Partida murriztea normala iruditzen zaigu, baina hortik kentzeko aprobetxatzea... Partida lortzea ez da bakarrik diru bat ematea, baizik eta egiten duzun lanari aitortza bat ematea ere bada. Guretzat oso garrantzitsua zen, Jaurlaritzak UEUren lanari aitortza hori ematea. Halere segituan martxan jarri ginen laguntza bila. Jendearen eta erakundearen babesa eta berotasuna bilatzen ari gara, eta horrek ere aurrera jarraitzeko indarra ematen digu. Hor jarraituko dugu diru gutxiagoarekin, egoera okerragoak izan dira eta aurrera atera izan gara.

N. Laguntza erretiratuko zitzaizuela jakin zenutenetik, kolokan ikusi duzue UEUren etorkizuna?

I. T. Zuzendaritzak inoiz ez du ikusi kolokan, nahiz eta oso erabaki gogorak hartzea ekarri duen. Baionan eta Iruñean egoitzak ditugu. Horiek “standby”-ean utzi behar izan ditugu. Bertako langileei kontratua eten eta kaleratu behar izan dira, beste guztiak murriztuak eta ERE-an geratu gara. Lehen gutxi gastatzen bagenuen, aurrekontua are zorrotzago jarraitzen dugu orain. Halere, ez da lehen aldia momentu txarrak pasatzen ditugunak. Horregatik oso garrantzitsua da guretzat kanpaina hau. Jendea ikastaroetara etorri-

ta, diru laguntza hori guretzat diru sarrera bat delako, eta baita ere aitortza, euskal gizarteak UEU behar duela alegia.

“Aurten hobeto doa kanpaina”

N. Aspaldiko apustu handiena eginda aurkeztu zarete gainera?

I. T. Badakizu, euskaldunak apustuzaleak gara, eta orain inoiz baino gehiago. UEU-k bazkideak ditu eta bazkideen laguntza izugarrikoa izan da. Dozena bat usurbildar ere bagara UEUko bazkide eta eskatu diegu, ikastaroak antolatu ditzaten, ideiak ekar ditzaten, borondatez dena. Eskatu diegu ezohiko kuota bat ordaintzea, denetan izugarri ondo erantzuten dute. Horrek ere ematen du halako indarra aurrera segitzeko.

N. Nola doa matrikulazio kanpaina?

I. T. Kanpaina aurten hobeto doa. Gure hartzaila, euskalduna, 20-35 urte arteko tituluduna da. Gure merkaturia ere ez da izugarria. Normalean erdi eta erdi izaten dugu; %50a lehenbiziko aldiz datorrena eta beste erdia errepikatzen duena. Horrek esan nahi du, jende berria erakartzeko gai gara eta behin etortzen denak bueltatzen dela.

“Gure misioa, euskal unibertsitatea sortzea da”

NOAUA! Zuen ikastaroak zertarako izan litezke baliagarriak?

Idoia Torregarai. Langabezian dagoenak curriculum osatzeko, lanean dagoenak bere jakintzak berritzeko, edo nahi izanez gero, gustuko gaiak lantzeko. Guztia euskaraz. Giro gozoan, gertukoan talde txikietan. Oso parte hartzailea da. Euskal Herriko zazpi probintzietako jendearekin harremanetan egoteko parada ematen du UEU-k.

N. Zeintzuk dira ikasleek gogokoenak dituzten gaiak?

I. T. Urtero, 35-40 ikastaro berri izaten ditugu. Hori ere erronka handia da. UEUren txikitutasunak bermatzen du gauza berritzaileak egiteko aukera. Ikastaroei dagokienez, hauek ditugu; artea eta musika, giza zientziak eta gizarte zientziak, ingenieritza, teknologia, osasuna eta zientzietakoak. Gehienak oraindik gizarte zientzietakoak dira. Batzuetan espero ez dugun ikastaroak izugarritzko arrakasta du. Aurten Pirinioetako ikastaro praktikoa bat hirugarren egunerako beteta zegoen. Itzultzaileen ikastaroei, informatikak ere oso ondo funtzionatzen dute. Batetik adituentzako ikastaroak daude eta beste batzuetan edonork parte har dezake.



UEU.ORG HELBIDEAN XEHETASUN GEHIAGO ESKURA DAITEZKE.

N. Ikastaroei buruzko zehaztasun gehiago zuen web orrian ezta?

I. T. Ueu.org, bertan udako ikastaroak klikatu. Hor duzue zerrenda osoa. Nahi izanez gero, matrikulatzeko aukera ere bertan dago, bestela deitu 943 82 14 26 telefono zenbakira. Udal diru laguntzekin, ikastaro bat 35 eurotan atera daiteke ikasle edo langabetu batentzat.

N. 40 urte bete ditu UEU-k. Zer berezitasun ditu?

I. T. Batzuk EHU-rekin nahasten gaituzte. UEU ordea kultur elkarte da. Aitzindaria da, hasieratik helburua eus-

kara eta unibertsitate munduak lotzea izan zen. Adolfo Suarezek esan zuen fisikari buruz ezin zela klase bat eman euskaraz. Eta ordurako Joserra Etxeberria, gure UEU kide bat jada klaseak ematen ari zen.

Ikastaroa eta formazioa eskaintzen dugu, euskal komunitate zientifikoa biltzen dugu, testu materialak ateratzen ditugu... Gure misioa euskal gizartearen beharretara egokitutako euskal unibertsitate bat sortzea da. Euskara izango duena ardatza, euskararen lurraldeetara egokিতuta egongo dena. Bide hori egiten ari gara, beste batzuen laguntzarekin.

Udal diru laguntzetaz baliatzeko aukera

NOAUA! Eibarren, Iruñean eta Baionan burutuko dira ikastaroak. Zer dela eta lekuotan?

Idoia Torregarai. Guretzat lurraldetasuna eta gainerako udako ikastaroak, Iparraldean sortu ziren. Horregatik, guretzat beti Iparraldea erreferentziazko toki bat da. Gure udako ikastaroak ere beti izan dira Iparraldean eta Nafarroan. Guretzat lurraldetasunak ere garrantzia handia duelako. Eibarren hasiko gara ekainaren 26tik 29ra, une honetan gure ikastetxe nagusia bertan baitugu. Uztailearen 4tik 6ra Baionara joango gara, 9tik 13ra Eibarrera bueltatuko gara eta bukatuko dugu 16tik 18ra Iruñean.

N. Ikastaroei interesa dutenei zer esan nahi zenieke?

I. T. Badugu blog bat, www.unibertsitatea.net/blogak/UEU40, ikastaroetan parte hartu duen ikasleen bizipenekin. Bertara sartu, irakurri dezala eta hor jakingo du zer ematen duen UEU-k. Bizpahiru irakurtzen baldin badituzte, konturatuko dira zer azaldu nahi dudan. Ikusi eta bizi izan dudalako merezi du parte hartzea eta behintzat ezagutaraztea usurbildarren artean UEU. Udal diru laguntzak daudela eta merezi duela horiek erabiltzea. Usurbilgo Udalak zorionez beti ematen du laguntza eta ez da ahazten UEU-taz.

Diru laguntza eskatzeko, ekainaren 29a baino lehen

UEU-ko ikastaroren bat egin dutenek, euskaltegian aritu direnentzat, edota aisialdiko begirale edo zuzendari titulua ateratzeko prestakuntza ikastaro batean parte hartu dutenentzat oharra; udal diru laguntzak eskatzeko epea zabalik dago, ekainaren 29ra arte. Deialdiko oinarriak ekainaren 11n argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Informazio gehiago, Potxoenean edo 943 371 999 telefono zenbakian.

Gaztelekua, uztailean ere irekita

Amaitu da, akabo ikasturtea. Ostiral honetan, oportetara doaz Udarregi Ikastolako ikasleak. Eguneroko zereginak alboratu, atsedean hartu eta ondo pasatzeko garaia heldu zaie, bestek beste, DBH zikloko ikasleei. 12-16 urte arteko ikasleentzat hain zuzen, ekitaldi eskaintza zabala prestatu diete Gaztelekuko arduradunek.

Ekainak 25, astelehena

17:00-19:00 Futbol partida Haranen, Imanol Agirretxe Realeko jokalariekin. Nori zuzendua: DBH 3.

Ekainak 28, osteguna

15:45-19:30 Zarauzko hondartzara irteera. Nori zuzendua: DBH 1-2.

Uztailak 5, osteguna

10:45-19:00 Donostiara piraguis-moa egitera. Nori zuzendua: DBH 2.

Uztailak 6, ostirala

11:00-19:00 Hendaiara irteera. Tren geltokitik hondartzara oinez. DBH 2.



EKITALDI UGARI ANTOLATU DITUZTE UZTAILAREN 30A BITARTEAN.

Uztailak 10, asteartea

11:00 Andatza irteera prestatu Gaztelekuan: janaria, kanpinga, guraso baimenak. Nori zuzendua: DBH 3.

Uztailak 12-13, ostegun eta ostirala
Andatzara irteera ostegunean 18:00etan. San Estebanen lo egin. Eta hurrengo egunean buelta, 14:00etan.

Uztailak 19, osteguna

10:45-19:00 Donostiako irlara egun pasa. Nori zuzendua: DBH 1.

Uztailak 20, ostirala

11:00-19:00 Hernaniko igerilekura egun pasa.
Nori zuzendua: DBH 1.

Uztailak 27, ostirala

16:00-19:00 Ur jolasak Artzabalen.
Nori zuzendua: denentzat.

Uztailak 30, astelehena

17:30-19:30 Udako ekintzen argazkiak ikusi, Gaztelekua txukundu...
Nori zuzendua: denentzat.

Potxoenea, "Arquia/Próxima" sarietan

Arquia/Próxima izeneko sarietan aipamen berezia jaso du Potxoenea kultur etxeko eraikinaren proiektuak. Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez, herri eragileen biltoki izan nahi duen gunea diseinatu zuten Maialen Sagarna, Ainara Sagarna eta Juan Pedro Otaduy arkitektoek Arquia fundazioak antolaturiko sariotara aurkeztu zuten euren proiektua. Guztira, 1.500 proiekturen artean lehiatu behar izan du Irazu kaleko eraikinak.

Epaimahaiak orain, ezagutzera eman dituen 25 aipamenen artean sartu du, Usurbilgo eraikina. Ez hori bakarrik, Sagarna ahizpek eta



1.500 PROIEKTUEN ARTEAN LEHIATU BEHAR IZAN DU.

Otaduyk Potxoeneko eraikinaren proiektua aurkeztu eta defendatu ahal izango dute, urrian A Coruñan burutuko den kongresu batean.

Sarituriko proiektu guztiak liburu batean jasoko dira, besteak beste, Potxoenea eraikineko proiektua.

"Herio heroi" antzezlan, ostiral honetan Zubietan

Etortzear diren garai zaharren orainari buruzko komedia absurdoa, ostiral honetan, gaueko 22:00etatik aurrera Zubietako Kaxkape egoitzan. Oier Guillan, Ainhoa Balerdi eta Amaia Corral aktoreen eskutik. Antzezlanak ikusteko sarrera doakoa izango da.



ZUBIETA LANTZENEK ANTOLATU DU "HERIO HEROI" ANTZEZLANA.

Aurtengo Santixabelak, koadrodun zapi urdinarekin ospatzeko gonbita

Astebete eskas herriko festei hasiera emateko. Ekainaren 28tik uztailearen 2ra ospatuko dira 2012ko Santixabelak. Hilaren 27rako halere, lehen ekitaldiak iragarri dira. Egunotan banatuko duten egitarauan ikusi ahal izango denez, berrikuntzekin datoz festa hauek.

Azken urteotan Haurren Eguneko antolatzaileek proposatuta, etxeko txikienei zuzenduriko Santixabeletako jai egunean lepoan zapia jantzeko eginiko proposamena, oraingoan orokorra izango da. Herriko festek iraun artean, Jai Batzordeak lepoan betiko koadrodun zapi urdina jantzita, festetan murgiltzera deitzen ditu herritarrak. Hasi beraz Santo Tomas egunez, edota antzeko ospakizunetarako erabili izan duzuen koadrodun zapi urdina bilatzen. Udalak etxean ditugunak berrera-biltzea bultzatu nahi du. Zapirik ez duenak halere, lasai egon dadila, Udalak salgai jarriko ditu eta egunotan.

Egitaraua, egunotan banatuko da

Udalak antolaturiko txapelketa irabazi duen Intza Salsamendi herritarren egitarauak emango digu aurten, Santixabeletan ospatuko diren ekitaldien berri. Ohi bezala, egunotan etxez etxe banatuko du Usurbilgo Udalak.

Bertsopaper Lehiaketa, azken txanpan

XXXVI. Bertsopaper Lehiaketan parte hartzeko epea ixtear da.



EKAINAREN 29AN AMAITUKO DA ESKAERAK AURKEZTEKO GARAIA.

Interesdunek, datorren astelehena, ekainaren 25a dute lanak aurkezteko azken eguna. Parte hartzeko usurbildarra izan behar da. 6-10 bertso artean idatzi beharko dira, gai librean. Lanek inoiz argitaratu gabeak izan beharko dute. Lanak udaletxera eraman behar dira, edo posta helbide honetara bidali: XXXVI. Bertsopaper Lehiaketa, Joxe Martin Sagardia Enparantza; 20170 Usurbil.

Lanak egilea nor den adieraz dezakeen daturik gabe aurkeztuko dira, izen goitiz. Lanarekin batera gutun itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak jarri. Sariak: lehenak, 200 euro eta txapela; bigarrenak, 150 euro; hirugarrenak, 100 euro. Epaimahaiaren erabakia, ekainaren 30ean, gaueko 22:00etatik aurrera frontoian ospatuko den bertso saioaren ostean ezagutuko da. Punta puntako bertsolariak datoz aurtengo saiora.

Maskota, asteazkenetik aurrera ikusgai

Datozen Santixabelak ekainaren 28tik uztailearen 2ra ospatuko diren arren, lehen ekitaldiak hilaren 27rako iragarri dira jada. Egun horretan jokatuko dira pala txapelketako final saioak. 18:00etatik aurrera frontoian. Gaueko 22:00etan, ITAYA Gazte Asanbladak antolaturiko futbol txapelketako finala ospatuko da.

Eta bazkalostean, 16:00etatik aurrera adi, aurtengo jaietako maskota jarriko baita. Horrekin batera, Santixabeletan apaingarri lanak egingo dituen mural bat ere egingo da.

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatua eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

LATAILLADE
ITURGINTZA

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak
eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

Pala txapelketako final-erdiak igandean jokatuko dira



IGANDEAN JOKATU ZIREN AZKEN KANPORAKETAK.

Paleta Goma Txapelketako partidien lekuko izan da frontoia azken igandeetan. Aurreko igandean jokatu zen azken kanporaketa. Egun hauetan, final-erdien txanda izango da eta ekainaren 27an jokatuko dira bi finalak.

Ekainaren 17ko jardunaldia

Xabier Murua - Jon Olaizola 25
Iban Arruti - Haritz Harreguy 17

Unai Loidi - Josu Errekondo 25
Jon Irazustabarrena - Jokin Zubiaur 15

Igor Alkorta - Eneko Arregi 22
Oidui Usabiaga - Mikel Ibarreta 25

Imanol Esnaola - Xabier Errasti 25
Josu Arruti - Manuel Galarraga 14

Aldameneko zutabeen dituzue final-erdietara sailkatu diren bikoteak. Emakumezkoen final-erdiak ostegun honetan jokatuko dira; gizonezkoenak, aldiz, ostiral iluntzean.

Bi kasuetan, finalak ekainaren 27an jokatuko dira. Hau da egun handirako antolatu duten egitaraua.

EKAINAK 27 ASTEAZKENA, 17:30EAN USURBILEN

- Kirol egokituko adiskidantzazko pala partida.
- Emakumezkoen tenis pilotaren finala.
- Emakumezkoen gomazko pilotaren finala.
- Gizonezkoen gomazko pilotaren finala.

Usurbilgo Pilota

Txapelketa, azken txanpan

EKAINAK 23 LARUNBATA

Goizeko 11:00etan, Usurbilen

JUBENILAK, FINAL-ERDIAK

Labaka - Iruretagoiena (Bidegoian)

Hernandez - Flores (Oartzun)

NAGUSIAK, FINAL-ERDIAK

Esnaola - San Sebastian (Hernani)

Santxo - Landaburu (Usurbil) (Elorrio)

EKAINAK 24 IGANDEA

Goizeko 11:00etan, Usurbilen

NAGUSIAK, FINAL-ERDIAK

Zendoia - Imaz (Usurbil) (Bidegoian)

Inda - Untxalo (Baztan)

Azpiri - Zubiri (Bidegoian)

Belloso - Senperena (Bidegoian)

Paleta Goma Txapelketa, final-erdiak

EKAINAK 21 OSTEGUNA, 19:30EAN USURBILEN

EMAKUMEZKOEN TXAPELKETA

Aitziber Aranguren - Dolo Errasti

Ane Aranburu - Ainhoa Azpiroz

Zalora Leoz - Nerea Zinkunegi

Nagore Leoz - Rosa Uribe

EKAINAK 22 OSTIRALA, 20:30EAN USURBILEN

GIZONEZKOEN TXAPELKETA

Oidui Usabiaga - Mikel Ibarreta

Unai Loidi - Josu Errekondo

Xabier Errasti - Imanol Esnaola

Xabier Murua - Jon Olaizola

Finalak

EKAINAK 27 ASTEAZKENA, 17:30EAN USURBILEN

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

TXAPELDUN TABERNA

razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...

Muna Iurra 2, 943 11 82 53

Usurbil Cup azken txanpara iritsi da



USURBIL FT-REN EGUNEAN GIRO EDERRA IZAN ZEN NAGUSI.

Usurbil FT-k antolaturiko Usurbil Cup txapelketa amaierara heldu da, azken partidak larunbatean jokatu dira. Minibenjamin mailako taldeak txapelketan zehar ez dira elkarren artean lehiatu, eta honenbestez, ekainaren 23an talde guztiek jokatu dute. Goizez 10:30etatik aurrera, Oiardo Kiroldegian. Arratsaldez, 16:00etan hasita gainerako

mailetako taldeen txanda izango da. Final saioak frontoian jokatu dira. Partidak amaituta, sari banaketa burutu da, 20:30ak aldera. "Guztientzako izango da oparia amaieran", adierazi dute antolakuntzatik. Eguna bukatzeko, Usurbil Cup-en parte hartu duten guztiek taldeko argazkia aterako dute Mikel Laboa plazan.

Eskubaloi taldea ere, ospakizun betean



Usurbil Kirol Elkarteak 50. urteurrenaren bidean jarri duen denboraldia, jai giroan borobildu zuen joan den larunbatean ospatu zuten Eskubaloi Egunarekin. Frontoian goizean eta Oiardo Kiroldegian arratsaldez, kategoria

desberdinetako jokalariek edota entrenatzaileek lagun arteko hainbat neurketa jokatu zituzten. Aginaga sagardotegian afari ederra dastatuz amaitu zuten eguna. Otorduaren ostean, urteko jokalariek onenak sariak banatzekoak ziren.

Kirol Patronatuak udako ikastaro eskaintza prestatu du

Uda honetan ere kirolaz gozatzeko aukera eskaini nahi dute Kirol Patronatutik. Horregatik, ikastaro eskaintza zabala antolatu dute uztaileko. Hilaren 4tik 20ra, helduentzat hobekuntza ikastaroa igarilekuan, mantentze gimnasia, aerobik, pilates, spinning. 8-10 urte arteko gaztetxoentzat bestalde, "Kirolarekin jolasean" ekimena antolatu dute. Jarduera desberdinetan parte hartzeko aukera izango dute; igeriketa, herri kirolak, talde kirol eta jolas desberdinak, pilota palaz, tenisa, badminton, mendi bizikletekin txangoak, patinak, psikomotrizitatea material ezberdinekin, jolasak, txapelketak... Etxeko txikienei zuzenduriko igeriketa ikastaroak ere antolatu ditu Kirol Patronatuak. Informazio gehiago edo izen emateko: 943 372 498 edo kirolpat@usurbil.net.



IGERIKETA IKASTAROK ERE ANTOLATU DITUZTE.

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

BENTĀ
TABERNĀ

HANBURGESAK
Oilasko erreak
Ogitartekoak

943 36 93 05

izagirre

ELEKTRIZITATEA

943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

ITAYA eta Usurbil: urtebetez elkarrekin

Hilabete batzuk falta dira oraindik Itayak zuen artean urtebete bete dezan, baina ideia ona iruditu zaigu kasik urtebete honen balorazio bat egiteko eta zuen artean partekatzeke. Akaso narzisizta iruditu dakioke norbaiti norberak bere buruaren balorazioa egitea, baina gaizki ere ez da etortzen norberaren barru eta hesteak arakatzea eta hauek balantza batean jarri eta pisatzea oreka zer alde-tara erortzen den jakiteko.

Itaitarron artean arazoak izan ditugu benetako Itaya noiz sortu zen finkatzeko, bere jaiotza-data ipintzeko, baina bere jaiotza bilakaera bat bezala har dezakegu, hau da, hasiera ez zen puntu bat izan, hiru puntuetara gehiago hurbiltzen da, segida edo bilakaera batera alegia. Bertan, Itayaren asmoa herriko gazteen hurbilketa bat burutzea zen, lokal apartatuetatik ekintza ezberdinen bidez elkartzeko bat sortzea. Horri lotuta hainbat ideia edo helburu finkatu ziren, gazteei eginiko elkarrizketa baten ondorio izan zirenak eta horien jorratzea eta garatzea hartu zen hasierako abiapuntu moduan. Horretarako 2011ko uda aprobetxatu zen frontoian eman ziren bideo emanaldien bidez, ondoren taldeetan bilduta ondorioak atera eta zalantzak argitzen genituelarik.

Honela herriko gazteak heztea helburu zuen prozesu batean sartu ginen, beti ere norberaren iritzia errespetatzen zelarik.

Lan-taldeetan

Udako heziketa saioen ostean Itaya egituratzen hasi zen. Bere zimenduak ipini genituen eta honela egun arte Itayaren programazioa ahalbidetzen duten taldeak sortu ziren: Euskal Herriko egoera, Etxebizitza, LZP (egun talde berdea izena erabiltzen duguna taldea izendatzeko), Parekidetasuna, Euskara eta Aisia eta Komunikazioa. Lan-talde bakoitzak bere urteko programa egin zuen, bakoitzak bere bidea jorratuz, bakoitzak bere helburuak betez. Eta horrela aritu gara gaur egun arte, urte bete honetan maila guztietako ekin-

tzak burutuz.

Hasieran ez zen erraza izan. Edozein proiektu bezalaxe, eta zailtasun puntu bat ipintzen dio gazte izatearen etiketa gainean izanik, baina uste dugu barrera eta hesi horiek gainditu ditugula, gazte izatearen etiketa negatiboak herriaren gehiengo baten pentsamenduari kendu dizkiogula herrian gure tartea izanik. Horren adibideak esatea ez legoke gaizki, batzuetan ahaztu egiten baitzaizkigu eta, edo ez gara konturatzen nor edo nortzuk dauden ekintza baten atzean.

Aurreko udan Andatza mendira igotzen gazte kuadrilla eder bat gazteen arteko harremanak handituz beste hainbat ekintza buruturik (naturarekiko errespetua, euskal kantugintza, kirola eta abar), bitartean etxean guraso guztiak guztiz preokupaturik zirelarik sekulako ekaitza sartu baitzen, baina guk ederki pasa genuen eta hurrengo egunean sekulako hamaiketako egin genuen. Honekin lotuta Ernioko kobazuloetan ere ibili ginen arrastaka saguzar eta bestelako zomorroen konpainian. Eta naturaren esparruan jarraituz Erraustegiaren aurkako martxetan eta obretarako bisitetan parte hartu dugu, naturarekiko errespetua bezain garrantzitsua baita pertsonen arteko errespetua.

Euskararen eguna

Euskararen arloan ere ibili gara gure pintzeladak ipintzen. Horren adibide ditugu herriko tabernetan ipinita dauden kartelak euskararen erabilera zuzena sustatzeko asmoz eta batez ere gazteen artean erabiltzen ditugun hitz edo esaldi okerrak gure ahotik kentzeko helburuarekin. Baina euskararen arloan dena ez da zuzentasuna ere. Honela ospatu genuen Euskararen eguna gazteok dugun heldu izateko gogoia alboratu eta inozentzia garbienean herriko haurrekin jolasak eginez algaren faltarik izan gabe. Eta algarekin jarraituz bukatu genuen eguerdi hura ere, hamaiketako janez piropo txapelketako piropo original, pastelero eta berdeenak entzuten. Euskaraz ere piropo ederrak esan daitezkeela erakutsiz.



MARTXOAN AMAIUREN IZAN ZIREN ITAYAKO GAZTEAK.

Hala ere arrakasta edo erreperkusio handiena neguaren gordintasunean Etxebizitza duin baten alde burutu genuen kanpaldia izan zen, hiru eguneko dema plaza okupatu genuelarik eta bertan mota guztietako ekintzak buruturik: sukaldaritza ikastaroak, etxe hutsen aurkezpena, bertsoak, kantuak, jolasak, presoien gutunak idaztea etab. luze bat.

Honen ondoren beste hainbat ekintza burutu ditugu, asko herriko beste kultur taldeen arteko laguntzarekin. Adibide bezala aipatzen ditugu Presoen aldeko jaialdia eta Nafartarrak kultur taldeak antolatutako hitzaldiak.

Ilusioz beterik gaude

Azken ekintzen artean ipiniko genuke herri erdian ipini dugun panela gure ideiak modu artistiko batean azalduz herritar orori. Orain herriko festen antolakuntzan eta gaztetxearen inguruan murgilduta topatzen gara, hurrengo urteko balorazioan agertuko litzatekeena.

Beraz, hasiera izateko gure aldetik iritzi positiboa eman diogu proiektu honi, oraindik hainbat aspektutan hobetu behar dugun arren. Baina ilusioz beterik gaude eta hori ez digu inork kentzen.

Eta beste hainbat gauza kontu diezazuegu, baina tartetxo honek ez du gehiagorako ematen. Zure iritzia gustura entzungo genuke gure pausoak finkoagoak izan daitezen.

Belar txarrak errotik!

Agenda !!

Ekainak 22/24

San Juan jaiak Kalezarren
(ikus 9. orrialdea).

Ekainak 22 ostirala

- Jakin eta Jolas antzerki taldea
Santueneko frontoian, 17:30ean.
- Herio Heroi antzezlan
Zubietako Kaxkapen, 22:00etan.

Ekainak 23 larunbata

San Juan sua, 19:30ean Zubietan;
22:00etan Aginagako Sekaia ondoan,
22:00etan Kalezarren.

Goardiako farmaziak

Ekainak 21, osteguna
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

Ekainak 22, ostirala
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Ekainak 23, larunbata
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 24, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 25, astelehena
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

Ekainak 26, asteartea
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Ekainak 27, asteazkena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Ekainak 28, osteguna
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 29, ostirala
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Ekainak 30, larunbata
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Uztailak 1, igandea
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak
irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani
Telefono zenbakia: 943 552 087.
Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA
25600 zenbakira (1,39 BEZ barne)

Zumartekoen ikasturte amaierako azken emanaldiak egunotan

Oporretara joatear dira Zumarte Musika Eskolakoak, baina ikasturtea behar bezala agurtzeko kontzertu astea antolatu dute. Ostiralera arte, abesbatza, Musika Txokoko ikasleek edota talde instrumentaletako partaideek emanaldiak eskainiko dituzte. Azkena gainera Kalezarreko San Juanetan. Hemen hitzorduon zehaztasun gehiago.

Ekainak 20, asteazkena

18:30 Talde instrumentalen emanaldia Sutegiko auditorioan: trikitixa taldeak, Gitarra Taldeak, Saxo Taldea, Piano bakarlariak.

Ekainak 21, osteguna

18:00 Musika Txokoko ikasleen emanaldia Udarregi Ikastolan.



SUTEGIN, UDARREGIN
ETA KALEZARREN
ARITUKO DIRA KANTUAN.

Ekainak 22, ostirala

19:00 Zumarte Gazte Abesbatza
Kalezarreko ermitan.

Antolatzailea: Zumarte Musika
Eskola.

Bularreko minbizia aztergai

Usurbilgo Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta Katxalin Elkartek (Bularreko eta Ginekologiako Minbizia duten Gipuzkoako Emakumeen Elkartek) bularreko minbiziari buruzko hitzaldia antolatu dute, asteazken honetarako, ekainaren 20rako Artzabalen. 18:00etan hasiko den ekitaldian, "bularreko minbizia sortzen duten faktoreetaz, tratamenduaz eta prebentzioaz hitz egingo da". Donostiako Onkologikoko doktore Arrate Plazaolak gidatuko du saioa.

Mikel Alvira idazlearekin solasaldia

Idazle batekin topaketa saioa antolatu du Sutegi udal liburutekiak, ostegun honetarako, ekainaren 21erako, 19:00etatik aurrera Sutegin. Mikel Alvira nafarra gonbidatu dute saiora eta berarekin solasean aritzeko aukera izango da. "El silencio de las hayas" (2009), "Cuarenta días de Mayo" (2010) eta "Llegará la lluvia" lanen egilea, une honetan Usurbilgo udalerrria hizpide duen eleberria prestatzen ari da. Iparraldean bizi den usurbildar baten historia azalduko du lan honetan.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra

943 24 01 76 eta
649 435 470

errazkinsl@euskalnet.net

kale nagusia 47, behea A

**ETXETRESNEN
KONPONKETA**

MARKA GUZTIAK, PREZIO ONEAN

645417665
(KABIER)
Usurbil

ETXEBIZITZA

- Pisu salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462
- 3 logelako pisu bat alokatzen da Muna Lurra kalean. 661 43 63 53.
- Lau logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. Informazioa: 659389707 / nerezabala1@gmail.com
- Pisu alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650euro. Tf: 667 438 145.
- Etxe bat alokatzen da Artaxonan (Nafarroa). 4 logela, jangela handia, lorategia. Hilabeterako edota baita uda parterako ere. 450 euro. 670 090 262 (Irene)
- Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairuko, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailera. 665720913 / 665720914
- Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.
- Pisu bat salgai Kaxkoan. Dena berritua. 3 balkoi eta ganbara. Eguzkitsua eta prezio onean. 697 204 758.
- Pisu salgai Munalurran. 3 gela, sukalde jangela, berogailua. Sartzeko moduan. 31 milioi pezeta. 943370957.
- Aukera ezin hobea! Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.
- Pisu alokatzen dut Elgoibarren. Lau gela. 677 780 680.
- 3-5 gela arteko pisua alokatzen dut Castellonen, oporraldi, asteburu pasa edota ezkontza agurretarako. Itsaso, gaztelu eta mendialdeko bistak ditu. 677 780 680.
- Pisu salgai, San Esteban kalea 11n. 4.pisua. Kanpoaldera ematen du eta eguzkitsua da. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.
- Pisu salgai, San Ignazio 5 kalean. 3 logela, 100 metro karratu eta terraza. 340.000 euro. 648 013 277
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346.
- Logela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. 667740266.
- Etxebizitza salgai Atxegalden. 86 metro, sukalde-jangela handia. 3 logela, egongela, 2 bainugela, ganbara, terraza handia. Berritua. 232.000 euro. 699 189 764.
- Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318.
- Pisu salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara, igogailua. 662 056 899.
- Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, dena berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.
- Altxariak izan eta bi gela dituen alokairuko pisu baten bila gabilza Usurbil inguruan. Fidantza eman dezakegu. 626 154 994 / 697 230 419.
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 120.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Pisu alokairuan Atxegalden. 3 gela, sukaldea, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).
- 90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua eta bizitzaren jartzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera). 237.000 euro.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera garajea erosteko. 699720940.
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Baji komertziala salgai Atxegalden. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com
- Scooter bat salgai, 450 euro. Egoera onean. 678 603 659.
- Kapritxozko Citroen Saxo salgai premiazkoa 2.200 euro. SS-BH, sekula istripurik izan gabea. Ondo zaindua eta gehigarri batzuk opari: bolante deportiboa eta erruberak zabaltzeko piezak. 609 928 387.

- Lokal bat alokatzen da Usurbilen, 90 metro koadro. 250 euro. Gazteentzat..., Atxegalden. 628 063 871.
- Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aristixto kalean. Bi solairu, bakoitza 45 m, guztira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.
- 38 m garaje itxia salgai, Txaramuntan. 665 677 195.
- Garaje itxi bat alokatzen da Artzabal. 647 120 253.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Sukaldari bat behar da Usurbilgo jatetxe baterako. 670 410 273.
- Sukaldari bat behar dugu, Xarman. 943 368 771.
- Larunbat eta igandeetarako barrakoa langile bat behar da Xarma tabernan. 943 368 771.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabilza. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.

Lan-eskaintzak

- Usurbilen bizi den pakistandar batek, ingeles klaseak emango litzuke gaztelania edo euskararen truke. 632 418 008. Raheem Abdul.
- 21 urteko neska usurbildar euskaldun bat eskaintzen da haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)
- Ingeles natiboak klaseak eskaintzen ditu uztailean Usurbilen, 10 urteko gorakoek 686 499 775 (Toby)
- Jardineritzako lanak egiten dituz txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).
- Neska arduratsua garbiketa lanetan orduka lan egiteko prest. 678 998 840.
- 18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tf: 626 735 354.
- Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.
- Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.
- 17 urteko neska euskalduna, udan lan egiteko prest: umeak zaintzeko, ikasketetan laguntzeko, ... Esperientzia umeekin eta Bigarren Baxileria amaitua. 665754889 / 634459249 (Ane)
- 16 urteko mutil euskalduna naiz eta udarako lan bila nabil. Umeak zaindu edo indarra behar den lanak egiteko prest nago, baita beste edozein lan ere. Baxilerreko lehen maila amaitua. 665754889 / 692577515 (Xabier)
- Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.
- Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.
- Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.
- Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568
- Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.
- Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.
- Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. Tf: 673 445 903.
- Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324
- Umeak zainduko nituzke arratsalde edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.
- Usurbilgo neska gazte bat naiz, Heziketa Berezian diplomaturia eta psikopedagogian lizentziatua. Goizez nahiz arratsalde, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. Badut esperientzia baita hezkuntza premia bereziak dituzten haur eta gazteekin ere. 688 661 997 / 943 365 005.
- Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritza eta Haur Hezkuntzan diplomaturia naiz. Badut esperientzia. 652712099.
- Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tf: 628 692 334.
- LHko haurrentzat klase partikularrak emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziak eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar dut. 626 370 969.

- DBH eta Baxilergoko klase partikularrak emateko prest. Matematika, Marrazketa... 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta euskaraz dakit. 943 365 079.
- Matematikako klase partikularrak, maila guztietan, 18 urtetako esperientzia. 646717676.
- Ingeles neska natiboa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urtetik 8 urte arte klase partikularrak emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. 660041361.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanetarako ere. 697 245 186, Idoia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
- Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritza aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziaduna eta ikasketa titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen dituz Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendari lanetan aritzeko nintzateke goizez. 620 093 697.
- Garbiketa lanetan edo dendari moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziak eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123.
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomaturak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri, baratzeko lanak, mendia garbitzeko edo igeltsaritza lanetarako, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Angora arrazako 10 katu txiki oparitzen ditut. Tf: 628 745 443.
- Mutil baten txamarra, talla 10-12, galdu zaigu frontoian. Beig eta urdin kolorekoa. 656 702 957.
- Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223
- Landetan "movil home" bat alokatzen da "Lago Leon" en. Aste Santuko bigarren astea, uztaila eta iraila. "Punta Lago" kanpinean. 634 443 909.
- Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.
- Haur sila eta kapazoa erosiko nuke: 667 715 075.
- Hemengo urra eta patata erosiko nituzke. 634409888.
- Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451
- Akordeoia saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Hemengo intxaurrek salgai. 943 67 11 60.
- Usurbilen WII-a, PSP-a eta nintendo DSI-aren sofwarea aldatzen da, Internetetik jaitzita joko guztietan jolastu ahal izateko. Ez da txipik instalatzen, ez da kontsola irekitzen. 635 729 637.
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoak. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.



Zorionak Anje!

Zure bosgarren urtebetetzean muxu handi bat, Unax, Oihan, June eta Aratzen partez.

Ohar, zorion agur, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 11:00etan. erredakzioa@noaua.com

HILDAKOAK

Asun Olaizola Udabe 92 urterekin hil zen, ekainaren 11n.



Interneten ere aurkituko gaituzu NOAUA! Usurbildarron zerbitzura

twitter
<http://twitter.com/noaua>

facebook
<http://www.facebook.com/noaua>

facebook
 Bilatu pertsonak, lekuak eta bestelak

Noaua Aldizkaria
 D3M-Askatasunako auziperatuak absolbitu dituzte, elkarretaratzea 19:30etan Mikel Laboa plazan

Noaua! Kultur Elkartea
www.noaua.com
 Jakitera eman denoz, gaur kaleratuko dute D3M-Askatasuna auziko epaia. Hasi dela eta, "Eskubide oztiak proiektu quzientzat" sartu...

Atsegin - Iruzkina - Elkarbanatu - du...

Hamaika
 ikusteko, bizitzeko

LTD/Euskaltel

Ordenagailuan

Ipad/Tablet

Mugikorrean

Nazioa eskura
www.hamaika.tv

EDERTU ZAITEZ!

LOLI LIZARRALDE
ESTILISTA



L'ORÉAL
PROFESSIONNEL

INOA
Kolorazio sistema berria!

Zubiurrenea, 5B USURBIL 943 361 971



ARTIDECO

Jwar
ESTETIKA

AUTOMAKILLAJE
KURTSOAK
DOAN!

urte osoan zehar!
ZATUZ ETA
INFORMA ZAITEZI!

munalurra 2, Usurbil 943 571 680



Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA

artzabal baserria 626603600

MASZADA
NATURAL THERAPY

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

UDA HONETAN...
Bolumena, pisua, moldeaketa, errealizazioa eta tonifikazioa lantzen dituen bi tratamendu ezin hobekak ekarri ditugu:

Revolution
Zelulitis (Entxarkatiba, edematosoa, fibrosoa, enkistada) lantzen duena.

MINCEUR INTENSIVE
Gizentasun morbidoa eta menopausia lantzeko.

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu

Egun oso irekita! Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41



Elexpe
ileapaindegia



Betileen tintaketa eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta etzandako Solariuma

Muna Lurra 12. ☎ 943 370 462

GOLDWELL
ELUMEN

mista

OSTEOPATIA ZERBITZUA
uztailaren 3tik aurrera

Karlos Alzugaray
Osteopata B.O Fisioterapeuta Kol zbk 178
HITZORDUA: 607 85 32 08

Zubiurrenea 4, ☎ 943 361 951